



INGURUMEN IRIZPIDEAK EROSKETEETAN TXERTATZEKO LABURUPEN-FITXA:

BULEGOKO ALTZARIAK

Prestatze-data: 2016

EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN ESKULIBURUA


Landutako dokumentua, ingurumen irizpideak erakunde pribatu eta publikoen erosketa eta kontratazioetan txertatzeko erraztasuna eta zabalkuntza sustatzen duten dokumentu bilduma baten barne hartzen da.

Eskuliburu honen bidez, argibide argiak eta praktikoak eman nahi dira, erosketa eta kontratazio publiko berdearekin lotutako helburu guztiak ahalik eta modu errazenean eta pausoz pauso landu ahal izateko. Horrez gain, etiketa nagusiak berrikusten dira, ingurumenean eragin txikiagoa duten produktu edo zerbitzuak identifikatzen dituztenak. Azkenik, erosketa eta kontratazio prozesuko une bakoitzerako jarraibideak ezartzen dira, prozesua modu arrakastatsuan bukatu dadin.

EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN ESKULIBURUA Eusko Jaurlaritzak, Ihobe Ingurumen Kudeaketarako Sozietate Publikoaren bitartez, burututako laguntza-tresna garrantzitsuena da.

Eskuliburu honek, administrazio publikoko zail guztietan erosketa eta kontratazio publiko berdea zabaltzeko beharrezkoa den informazioa eskaintzen du.

Argitalpenaren testu osoa eskuragarri dago www.ihobe.eus webgunean.





GURE ERABAKIA:

BULEGOKO ALTZARIEN EROSKETA IRAUNKORRA

Bulegoko altzariak produktu-multzo handi bat dira: laneko mahaiak eta aulkiak, artxibatze altzariak, armairuak eta apalak, plafoiak eta lanparak, butakak eta besaulkiak, edo veste elementu osagarri batzuk, hala nola paperontziak, euritako-ontziak edo esekitokiak.

Bulegoko altzariak modu iraunkorren erosituta eta eskuratuta, zein da gure helburua? Haiekin lotutako ingurumen-eraginak murriztea nahi dugu. Eragin horiek, batez ere produkzio- eta botatze-fasean kontzentratzen dira, kasu honetan. Produktu-mota horiekin lotutako kontzeptu batzuk, eta erosketak, erabilpen- eta botatze-prozesuetan eman beharreko oinarritzko urratsak lagungarriak izan dakizkiguke, erabakiak irizpide eta ezagutza egokietan oinarrituta hartzeko.



ZER JAKIN BEHAR DUGUN

Bulegoko altzariak ingurumen-irizpideak erabilia erosteko, jarraibide orokor batzuk bete behar dira, eta ingurumen- eta teknika-alderdiak kontuan hartu. Hauek dira, labur adierazita, ideiarik garrantzitsuenak:

Zenbait kontzeptu nagusi

Bulegoko altzariak erostean, erabiltzean eta botatzean ingurumen-eragina murrizteko ekintza-jarraibideak (“jarraitu beharreko estrategia”).

1. Altzarien balio-bizitza ahalik eta gehiena luzatzea, ordeko piezen eskuragarritasuna bermatuta.
2. Lehendik ere badauden altzariak berrerabiltzea, egoera onean baldin badaude.
3. Fabrikazio-etapek sortutako ingurumen-eragina gutxitzea. Lehenik eta behin, kontuan hartu behar da materialen jatorria. Lehentasuna birziklatutakoei eman behar zaie (metalen eta plastikoen kasuan, adibidez) edo baliabide berriztagarrietatik eratorritakoei (zuraren kasuan). Bestalde, produkzio-prozesuen kutsadura-kargak eta produktuek dauzkaten substantzia kaltegarriak minimizatu egin behar dira.
4. Produktua diseinatzean, kontuan hartzea haren balio-bizitza amaitu eta berrerabiltzeko aukera guztiak agortu direnean, desmuntatu egin behar dela, osagai guztiak bereiziz, geroago birzikla daitezzen.

Bulegoko altzarietan kontuan hartu beharreko ingurumen-eta teknika alderdiak:

- **Iraunkortasuna eta mantentze-lanak:** produktuen balio-bizitza luzatzea dute helburu irizpide horiek. Hainbat garaiera eta itxuratara erraz egoki daitezkeen equipo modularrak aukeratu behar dira. Halaber, erabateko bermea duten produktuak erosi behar dira, ordeko piezak luzaroan izango dituztela ziurtatuta.
- **Mantentze-lanei** dagokienez, ziurtatu behar da ez dela beharrezkoa ingurumenari kalte egiten dioten garbiketa-produktuak erabiltzea. Iraunkortasunari dagokionez, akaberen edo, oro har, produktuen erresistentziarekin lotutako estandar tekniko batzuk betetzea ere eska dezakegu. Azkenik, produktuari buruzko informazioa eta argibideak kontserbatu egin behar dira, produktuaren balio-bizitza ahalik eta gehiena luzatzeko.
- **Konpongarritasuna eta birziklagarritasuna:** produktua osatzen duten materialak ordezkatu eta, behar izanez gero, konpontzeko, eta balio-bizitza amaitutakoan tratamendu egokia jaso dezaten, material horiek erraz bereizi behar dira gainerako osagaietatik eta, era berean, birziklagarriak izan behar dute.
- **Bilgarriak:** ahalik eta txikiena eta monomateriala izan behar du bilgarriak; lehenik eta behin, berrerabilgarria izan behar du. Bestela, materia birziklatuaren

Zenbait kontzeptu nagusi

edukiportzentajeak handia eta erraz bereizteko modukoa izan behar du, ondo kudeatzeko eta geroago birziklatzeko.

- **Materialen jatorria:** gomendagarria da produktuek material birziklatuen portzentaje handia izatea. Zuretik eratorritako produktuen kasuan, zura baso-ustiapen iraunkorretatik datorrela ziurtatu behar da.
- **Osaera:** produktuetan dauden substantzia askok osasun nahiz ingurumenerako duten toxikotasuna dela eta, haien erabilpena debekatzen edo mugatzen duten erosketa-irizpideak zehaztu egin behar dira.

Ingurumen-egiaztagiriak: zein dira?

- **Bulegoko altzarietarako ekoetiketa ofizialak:** Beltxarga Zuria, Aingeru Urdina eta NFEnvironment.
- **Material zehatzetarako, *beste egiaztagiri batzuk:***
 - ⇒ **Zura:** FSC edo PEFC, baso-ustiapenen kudeaketa iraunkorra dela egiaztatzen duten ziurtagiriak.
 - ⇒ **Ehunak:** Beltxarga Zuria, Europako Etiketa Ekologikoa edo Öko-Tex ziurtagiriak pertsonentzat edo ingurumenarentzat substantzia arriskutsurik ez duten ehunak egiaztatzen dituzte.
 - ⇒ **Aparrak:** Certipur egiaztagiriak edo Europako Etiketa Ekologikoak substantzia toxiko jakin batzuk ez direla erabiltzen bermatzen eta beste batzuen erabilera mugatzen dute.

	Europako Etiketa Ekologikoa	Beltxarga Zuria	Aingeru Urdina (Blauer Engel)	NF-Environment	FSC	PEFC	OEKO TEX	Certipur
Altzariak	●*	●	●	●				
Zura					●	●		
Ehunak	●	●					●	
Aparrak	●							●

- **Ekodiseinuaren UNE-EN ISO 14006:2001 arauaren ziurtagiria:** produktuaren bizitza-ziklo osoan (hau da, produktuaren bizitzaren fase guztietan, lehengaiak eta osagaiak eskuratzen direnetik bota eta desagerrarazten diren arte), haren ingurumen-eragina gutxitzearen irizpidea aintzat hartu dela egiaztatzen du ziurtagiri honek.



EROSKETATIK HONDAKINEN KUDEAKETARA BITARTEKO BIDEA

Bulegoko altzariak erostean, erabiltzean eta botatzean eman beharreko zenbait pausotan, erosle eta kontsumitzaile gisara, badugu erabakitzeke eta eragiteko ahalmena, eta, horren ondorioz, ingurumen-eragina murriztekoa. Zer unetan? Nola izan iraunkor?

ZEIN DIRA BULEGOKO ALTZARIEI DAGOKIENEZ DITUDAN BENETAKO BEHARRAK?

1. unea. Beharrak

Bulegoko altzari berriak erosi aurretik, epe ertainera eta luzera pentsatuz erantzun beharreko bi galdera daude.

- Zer pieza aldatu behar ditut?
- Lehendik dauzkagun altzariak edo bestelako elementuak berrerabil daitezke?

Erantzunen bidez, bulegoko altzariak erosteko dugun benetako beharra hauteman, zenbatu eta doitu dezakegu.

BULEGOKO ZER ALTZARI EROSI?

2. unea. Bulegoko altzariak erostea

Bulegoko zer altzari erosi behar dugun erabaki ondoren, aintzat hartu beharreko ngurumenirizpideak zehaztu behar dira. Bi irizpide-mota daude:

- Irizpide orokorrak edo produktu-mota guztiei aplikagarriak: iraunkortasuna, mantentzea, birziklagarritasuna eta bilgarriak.
- Berariazko irizpideak, eskainitako produktuen osagaietarako: batez ere zurezko taulak, elementu metalikoak, tapizak, bigungarriak, plastikoak eta abar.

Orduan, zer produktu erosi behar ditugu?

- Bulegoko altzarien produktuak ingurumena errespetatuz erosteko erarikerrazena da aipatutako ekoetiketa ofizialen bat duten altzariak erostea edo UNE-EN ISO 14006:2001 Ekodiseinuaren Arauari jarraituz ekoitzitakoak erostea.
- Beste aukera bat da ingurumen-kudeaketako sistemak dituzten fabrikatzaileen produktuak aukeratzea. Aukera horrekin ez da bermatzen, ingurumenari dagokionez, produktuak hobeak izatea, baina bai horiek lege-eskakizunen arabera eta ingurumen-babeserako neurriak erabiliz fabrikatzea.

OHARRA: Administrazioak prozedura ireki edo negoziatu baten bidez erosi behar baditu bulegoko altzariak, Ihobek argitaratutako Kontratazio eta Erosketa Publiko Berdearen

2. unea. Bulegoko altzariak erostea

Gidaliburuan, www.ihobe.eus, aurki daitezkeela orrian sartu beharreko irizpideak.

AZKENEKO URRATSA: NOLA KUDEATU ERABILTZEN EZ DIREN PRODUKTUAK ETA HONDAKINAK?

3. unea. Hondakinen kudeaketa

Altzari berrien erosketa, gehienetan, altzari zaharrak edo ordezkatu behar direnak kudeatzeko beharrari lotuta dago. Zer irizpide erabili behar ditugu horretarako?

- Lehentasunezko aukera: haien berrerabilpena sustatu behar da. ¿Zelan? Hona hemen aukera batzuk:
 - ⇒ Lekuz aldatuz gero, etorri berriei uztea, haiek erabil ditzaten.
 - ⇒ Altzarien biltegi bat izatea, egoera onean dauden altzariak beste erakunde edo partikular batzuen egoitzan jartzeko.
 - ⇒ Elkartea, GKE edo irabazi-asmorik gabeko beste erakunde batzuei ematea, beren bulegoetan jartzeko edo lantzen ari diren proiekturen batean erabiltzeko.
 - ⇒ Gizarteratzeko erakundeei edo helburu sozialak dituzten elkarteei ematea edo haiek jasotzeko kontratatzea, zaharberritzeko eta berriro merkaturatzeko, eta, hartara, produktuei balio soziala eranstea.
- Altzairuak ezin badira berriz erabili, haien balio-bizitzaren amaieran tratamendu zuzena emango zaiela bermatu behar da. Horretarako, sortutako hondakinen birziklapena eta tratamendua tamaina handiko materialen kudeatzaile baimenduek egin behar dituzte, produktuetako materialak bereiziz, gero balio handiagoa izan dezaten.

 **INFORMAZIO GEHIAGO...****Lotura interesgarriak**

- www.ihobe.eus webgunean egin dezakezu kontsulta, non erabilgarri baitituzu **Erosketa eta Kontratazio Publiko Berdearen Eskuliburua** (ekipo informatikoei buruzkoa da atal berezi bat) eta **Produktuaren Ingurumen Etiketen Eskuliburua**.
- Halaber, irizpide horiek betetzen dituzten produktuei eta hornitzaileei buruzko informazioa du lhobek, ezarritako irizpideak betetzen dituzten produktu eta hornitzaile berri guztiei irekita dagoena.
- Bestalde, zuzeneko kontsultaren bat egin nahi izanez gero, lhobe Line telefonora deitu dezakezu: 900 150 864.